



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

	ESP. KODEA COD. EXP.	2024CONB0003
ESPEDIENTEA EXPEDIENTE	HITZARMENAK	
TITULARRA TITULAR	MATADEIXE ZINETOGRAM TALDEA	
IFK CIF	G-20732715	

AZKOITIKO UDALA ETA MATADEIXE ZINETOGRAM ZINEKLUBAREN ARTEKO HITZARMENA

BILDU DIRA

Alde batetik, Sonia Vazquez Tejerina Azkoitiko Udaleko Herritarrak Batzordeko Lehendakaria, Azkoitiko Herriko Plaza, z/g-ean egoitza izan eta P- 2001800-H I.F.K. zenbakia duen Azkoitiko Udalaren izenean.

Beste alde batetik Goretti Orbea Azpitarte, NAN 72.452.058 B duena, Altzibar etorbidea 15 egoitza izan eta IFK G-20732715 duen Matadeixe Zinetogram erakundearen izenean.

Bi alderdiek onartu diote elkarri hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun osoa edukitzea, eta Matadeixe Zinetogram kluba eta bere ordezkartzaren kasuan, Administrazio Publikoarekin hitzartzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan sartuta ez daudela adieraz duenaren arabera. Beraz, agertutakoek honako hau

ADIERAZI DUTE

I.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioiko aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak zuzenean eman ahalko direla, betiere, diru-laguntza arautzen duen hitzarmenean eta diru-laguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua diru-laguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako diru-laguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikulua arabera aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, diru-laguntza horiek emateko prozedura ofizios hasi daiteke edo eskatuta eta diru-laguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.

II.- Lankidetzaren hitzarmen hau egiteko orduan, kontuan hartu dira Matadeixe Zinetogram zineklubaren jendartean duen eragina, zenbat azkoitiarrek parte hartzen duten taldean, elkartearen finkatze maila, ematen den zerbitzua, izandako ibilbidea, jarraitasuna eta egonkortasuna.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

III.- Diru-laguntza hau ematen da interes publiko eta sozialeko helburuak betetzeko. Zehazki, Baztartxo Antzokiko zine forum emanaldiak sortu zituen gastuen finantzatzeko erabiliko da.

IV.- Hitzarmen hau sinatzen da Azkoitiko Udalaren eskumenen egikaritzan, hain zuzen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.(19) artikulua xedatutakoaren arabera.

V.- Hitzarmen honen helburua Azkoitiko Udaleko aurrekontuan (indarrean dagoena) aurreikusitako diru-laguntza erakunde onuradunaren alde bideratzea da eta erakunde onuradunak bere gain hartuko dituen baldintzak nahiz konpromisoak finkatzea.

Beraz, diru-laguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

XEDAPENAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen xedea da Azkoitiko Udalak 2024. ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza Matadeixe Zinetogram zineklubri ematea eta emate horren baldintzak arautzea. Matadeixe Zinetogram zineklubari ondoren aipatzen diren jarduerak eta zerbitzuak antolatu ditzan: Matadeixe Zinetogram zineklubak herritarrei Baztartxo Antzokian zine forum proiektzioak ikusteko aukera emango die (gutxi gora behera hiru astean behin).

BIGARRENA: Azkoitiko Udalak, Matadeixe Zinetogram zineklubari BEDERATZI MILA ETA HIRUREHUN EUROKO (9.300 €) diru laguntza emango dio 2024eko udal aurrekontuko partida honen lepotik: 1.3100.481.334.00.06.

Diru laguntza hau, ordainketa batean emango da, hitzarmena sinatu ostean. Horretarako Matadeixe Zinetogram zineklubak dokumentazioa hau aurkeztuta izan behar du:

-2024ko Matadeixe zine programa eta jardueren proiektua eta aurrekontua.

-Gainerako finantza iturriei buruzko zehaztapen idatzia edota beste finantza iturririk ez duen ziurtagiria.

HIRUGARRENA:

- Aurkeztu den proiektuaren baitan egiten diren ekitaldi guztietan adierazi beharko da Azkoitiko Udalak diruz lagundu duela. Era berean, argitaratu daitezkeen publizitateetan, agerian utzi beharko da Azkoitiko Udalak laguntza eman duela, "Azkoitiko Udalaren laguntzarekin" esaldia txertatuz Udalaren Logoarekin batera.
- Ekitaldi edo jardueraren berri eman beharko zaio Kultura Departamentuari hilabete lehenago (eguna, ordutegia, lekua, informazioa...).
- Iragarkiak, ohar eta jakinarazpenak, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, ahal den guztietan, euskara hutsean egingo dira. Bi hizkuntzetan egiten badira, lehenasuna emango zaio euskarari.
- Ezingo da sexu edo arraza arrazoiengatik diskriminaziorik egin eta une oro errespetatu beharko da emakume eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasun printzipioa.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

LAUGARRENA: Matadeixe Zinetrogram Elkarteak ziurtatzen du, Dirulaguntzen onuradun izateko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan eta Azkoitiko Udaleko Dirulaguntzen Oinarri Orokorretan (GAO, 54 zk, 2023ko martxoaren 20a) Zehazten diren baldintza guztiak betetzen dituela.

Hala ere, Azkoitiko Udalak egiaztatu egingo ditu datu bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik ondorengo baldintzak:

1. Poliziaren Zuzendaritza Nagusia:
 - Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren nortasun datuen kontsulta eta egiaztapena.
2. Gipuzkoako Foru Aldundia eta foru-ogasanak:
 - Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.
3. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra:
 - Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituenaren kontsulta.

Gainera, Azkoitiko udalak egiaztatuko du, udalarekin zerga betebeharrak egunean dituela.

BOSGARRENA: Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, diru-laguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egiten direnak. Gastu bat diruz laguntzeko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 31. artikuluan xedatutakoa bete behar da, baita azpikontratatzeko 29. artikuluan eskatutako baldintzak ere.

5.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu mota batzuetarako ondorengo mugak ezartzen dira:

5.1.1.- Ez dira onartuko gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, ez badituzte betetzen legezko faktura edo egiaztagiri kontsideratzeko baldintzak.

Salbuespen izaeraz, zerbitzuak edo lanak egiten badituzte, noizbehinka, faktura egiteko egoeran ez dauden pertsona batzuek, baina legez eskatu dakizkien baldintzak beteta, fakturaren ordean onartuko da hartzaileak jaso izanaren agiri bat aurkeztea, zeinetan jasoko diren izen-abizenak, nortasun agiria (NA) eta kontzeptua. Onuradunaren gastu guztiak kontuan hartuta, ezin izango dute gainditu gastu guztiaren %25aren kopurua. Jaso izanaren agiri bakoitzaren zenbatekoa ezingo da izan 800€ baino handiagoa eta zenbatekoa 300€tik gorakoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe kontuan ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

Jaso izanaren agiria sinatu duenari Ogasunak erreklamazioren bat jarriko balioke, ezin izango zaio inolako erantzukizunik eratorri Azkoitiko Udalari; izan ere, Azkoitiko Udalak gastua egin eta ordaindu dela egiaztatu besterik ez du egingo, emandako diru-laguntza justifikatzeko bitarteko gisa.

5.1.2.- Bazkari, afari, hotel edo ostalaritzako zerbitzuen kostuak, kilometraje gastuak, ibilgailuentzako erregai gastuak, telefonia zerbitzuetako gastuak edo antzekoak modu nabarian (eta egoki justifikatuta) aurretik identifikatuak izan behar dira aurkeztutako proiektuan. Edonola ere, behar den proportzionaltasuna gorde beharko dute egindako gastuaren artean eta lortu nahi duten helburuaren artean, zenbatekoa izan gabe entitatearen gastu guztien % 25 baino handiagoa.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

5.1.3.- Salbuespen izaeraz, justifikatzen zailak diren gastuak onartuko dira, zeinak ez duen beharko agiriz justifikatzea, eta kasu batean ere ez da izango onuradunaren gastu guztien %10 baino handiagoa.

2024eko abenduaren 31n amaituko da diru-laguntza erabiltzeko edo jarduerak egiteko epea. Aldiz, diru-laguntza emateko helburua bete duela zuzituzeko eta jasotako diru-laguntza zertan erabili den justifikatzeko epea 2025eko otsailaren 28an amaituko da.

Justifikatzeko modua KONTU ERRAZTU bidez egingo da eta honako dokumentuak izango ditu:

- a) Justifikazio-kontuaren adierazpena Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- b) Jarduera memoria bat, diru-laguntza ematerakoan jarritako baldintzak bete egin direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena.
- c) Jarduerak izan dituen gastuen eta sarreren zerrenda sailkatua Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- d) Gastua justifikatzeko balio duten faktura, ordainagiri edo trafiko juridikoan frogatutako balioa duten beste agiriak onuradunak gorde beharko ditu eta Kultura Departamentuak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratuta. Hautaketa ausazkoa izango da eta onuraduna behartuta egongo da hautatu diren agiri original horiek aurkeztera.
- e) Jaso-izanaren egiaztagiria begiratu dira, 300 €tik gorakoak direnak eta PFGZren atxikipena egin al den egiaztatuko da. Gainera, Igorle beraren Jaso izanaren egiaztagiri aztertuko dira eta PFGZren atxikipena al duten egiaztatuko da, beti ere igorlearen kopuru metatua 300 €tik gorakoa bada.

f)

g)

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezakete berekin, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

SEIGARRENA: Diru-laguntza hau jaso ahal izateko aurreko ekitaldiko diru-laguntza zuzituta izan behar du. Likidazioan ezingo da superabita eduki eta horrela suertatu ezker, gehienez jasotako kopurua itzuliko dio Azkoitiko Udalari.

ZAZPIGARRENA: Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketan bestelako diru-laguntzekin, eta Matadeixe Zinetogram zineklubaren gainontzeko sarrerekin, beti ere udalari informatuta. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta egora hori gertatzen bada, diru-laguntza murriztuko zaio Matadeixe Zinetogram zineklubari.

ZORTZIGARRENA: Azkoitiko Udala ez da arduratuko Matadeixe Zinetogram zineklubaren lanean ari diren langileez eta Matadeixe Zinetogram zinekluba izango da langileekiko lan-harremanaren ondorioz sortutako lege alorreko betebeharren erantzule bakarra. Lan alorreko legeri babesleak bere alderdi guztietan ezarritakoa bete behar du.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak onartzen dituela.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Era berean, izenpetzen duenak adierazten du Azkoitiko Udalarari eman dizkion Datu Pertsonalak onespenez eman dizkiola eta datu horiek Azkoitiko Udalak baimendutako fitxategian sartzeko eta tratamendu automatizatua emateari baietza ematen diola.

Gainera, sinatzen duenak aitortzen du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela eta ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatzen duenak baimena ematen dio Azkoitiko Udalarari:

- Izaera pertsonaleko datu horiek udala kudeaketarako bakarrik erabiltzeko.
- Hitzarmen honen xede den diru-laguntza zuzen kudeatzeko garrantzizko den informazio guztia eskuratu ahal izateko beste Administrazio Publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Hitzarmen hau izenpetzen duenak aitortzen du argibide guztiak eman zaizkiola berak eman dituen datuak izaera pertsonaleko datuen eta babes digitaleko 3/2018 lege organikoak ezarritako moduan eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko aukeraren inguruan.

HAMARGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Diru-laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra eta kasuari aplikagarria den gainontzeko araudia.

HAMAIKAGARRENA: Administrazioko auzitegiatarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitrajez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorriz.

Hitzarmen honetako klausulak ez betetzea haren deuseztapena ekar lezake eta elkarrekin diru-laguntza kontura jasotakoa itzultzera behartuta egongo da, laugarren klausulan zehaztutako eran.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Herritarrak Batzordeko Lehendakaria
Sonia Vazquez Tejerina

Matadeixe Zinetogram zinekluba
Goretti Orbea Azpitarte

2024 APL. 18

EKS | CSV: **ESKUc8178862-0d37-496e-89cb-80e2024bde7f**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

